

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gure merkatua masiboa da, denei eskaintzen diegun produktua berdina delako: garraio publikoa erabiltzea praktikoagoa izatea eta denbora aurrezteko busa, trena edo delakoa hartzerako garaian. Beraz, bereziki garraio publikoen erabiltzaieei zuzendutako proiektua



da. Hala ere, egia da gure fokoa gazteak izango direla, izan ere, haiek dira teknologiak hobekien erabiltzen dituzten pertsonak. Horregatik, haiek erakartzen saiatuko gara gure publikoa handitzen jun dadin, gazteek gure aplikazioa erabili ostean helduak diren horiek aplikazioa erabiltzera erakarriko dituztelako.

Ez dugu inolako limiterik jartzen gure bezeroen inguruan, hau da, gazte zein heldu bat izango da aplikazioa erabiltzeko gai. Horregatik oso intuitiboa eta erabilerraza den aplikazio bat sortuko dugu, denek erabili posibleko dutena. Gainera, ordaintzeko jarriko ez dugun hortan, ez du garrantzirik izango bezeroaren egoera ekonomikoak (anuntzioak kentzeko bakarrik ordaindu beharko da, eta anuntzioak inguruko komertzioak izatea ahaleginduko gara).

Aldi berean, enpresei beren garraiobideak gure aplikazioan sartzea eskeiniko diegu, modu hartan beraiei ere publizitatea eginez. Hau segmentatutako merkatua kontsideratuko dugu, bezero bakoitzaren baitan plan ezberdin bat aurkeztuko diegulako (GPS kantitate bat, pertsona kontagailu kantitate bat, aplikazioan eskeiniko dituzten eskaintzak...).

